



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

ENPLEGU ETA GIZARTE BERRIKUNTZARAKO EUROPAR PROGRAMA (EASI) (2014-2020)

ERREFERENTZIA	Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Programa (EaSI) 2014-2020. (Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa ZN).
HELBURUAK	Programaren xedek enpleguaren sorkuntza laguntzea eta Europar Batasunaren zehar gizarte-politika eta mugikortasuna erraztea dira, gazteria bezalako talde ahulenetan arreta berezia jarriz. Zehazki, programaren esparruan, kalitatezko enplegu jasangarriaren sorkuntza, gizarte-babes egoki eta duin baten bermea, gizarte-bazterketa eta pobreziaaren aurkako borroka eta lan baldintzen hobekuntza sustatuko dira.
EKINTZAK	Programa hiru ardatzetan banatzen da: 1. "Progress" ardatzak enpleguaren alorrean EB-ren politika eta baliabideen garapena, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa babestuko ditu, bereziki, gazte langabeziaren aurkako borrokarako, gizarte-babesarako, gizarteratzea eta pobreziaaren murriztapena eta prebentziorako eta, lan baldintzen hobekuntzarako. Ildo honetan, honako ekintza motak finantziatuko dira: analisi jarduerak (datu bilketa, estatistikak, metodologia garapena, inkestak, azterlanak, ebaluaketak...); elkarrenganako ikaskuntzarako jarduerak; sentsibilizazioa eta zabalkundea (jardunbide egokien hartu-emanak, hitzaldiak, mintegiak, profesional juridiko eta politikoen trebakuntza, informazio eta komunikazio jarduerak...); eta sareen funtzionamendutik, administrazioek duten gaitasunen errefortzutik, lantaldeen antolaketatik eta sareen sorkuntzatik erator daitezkeen gastuei laguntza. 2. "EURES" ardatzak Europar Batasunaren barruan pertsonen mugikortasun zuzena sustatzen duten eta mugikortasun oztopoak ekiditzen dituzten ekintzak babesten ditu. Zehazki, EURESeko mugaz haraindiko elkarrenganako garapena eta hauen jarduerak; informazio, aholkularitza eta mugaz haraindiko langileen lanpostu eta kontratazio zerbitzuak ematea; enplegu eskaintza eta eskaerak orekatzeko plataforma digital eleanitz baten garapena; berariazko mugikortasun planen garapena; EURES eragileen elkarrenganako ikaskuntza eta EURES aholkularien trebakuntza; eta informazio eta komunikazio ekintzak finantziatuko dira. 3. "Mikrofinantziaketa eta gizarte-ekintzailtza" ardatzak pertsona fisiko zein juridikoei finantziatorako sarbidea eta honen erabilgarritasuna bermatzen du.
ONURADUNAK	Progress ardatza: Aginte publiko nazionalak, eskualdekoak eta lokalak, enplegu zerbitzuak, EB-eko legedian aurreikusten diren erakunde espezializatuak, eragile sozialak, gobernuz kanpoko erakundeak, goi-hezkuntzako erakundeak, ikerketa zentroak, ebaluaketetan adituak, estatistikako institutu nazionalak, komunikabideak. EURES ardatza: Aginte nazional, eskualdekoak eta lokalak, enplegu zerbitzuak, eragile sozialak eta beste agente batzuk. Mikrofinantzaketa eta gizarte-ekintzailtza ardatza: Erakunde publiko edo pribatu nazional, eskualdekoak eta lokalak.
AURREKONTUA	9.469.000 euro
GAUZATZE ALDIA	2014-2020

INTERESEKO ESTEKAK	Araudia (EB) 1293/2013 zbka. Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Programaren inguruan Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa ZN
INFORMAZIO GEHIAGO	Europako Batzordea Enplegua, Gizarte Gaiak eta Aukera Berdintasuna ZN DG EMPL/B.1. J-54 01/004 Rue de Loi, 200 B-1049 – Brusela empl-vp-industrial-relations@ec.europa.eu